

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko maiatza

Euskal AEko apartamentu turistikoetan 2022ko maiatzean erregistraturiko sarrerak eta gaualdiak COVID-19aren aurreko aldiaren gainetik daude berriz ere

Landa-ostatueta, urte arteko igoerak bereziki adierazgarriak izan dira: % 211,5 sarrerak eta % 171,7 gaualdiak

Eustatek landutako datuen arabera, 2022ko maiatzean 10.291 sarrera eta 40.323 gaualdi izan dira Euskal AEko turismoko apartamentuetan. Bi zifra horiek 2019ko maiatzean, COVID-19aren aurretik, ikusitakoak baino handiagoak dira.

Euskal AEko **landa-ostatueta** 14.341 sarrera eta 30.505 gaualdi izan dira 2022ko maiatzean; urte arteko hazkundeak % 211,5ekoa eta % 171,7koa izan dira, hurrenez hurren. 2019ko maiatzean, COVID-19aren aurretik, 15.688 sarrera izan ziren, eta 33.288 gaualdi.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Maiatza 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022/05	m/m-12 (%)	2022/05	m/m-12 (%)	2022/05	2021/05	2022/05	p.p. *	2022/05	p.p. *
EUSKAL AE	14.341	211,5	30.505	171,7	2,13	2,44	21,7	12,8	25,8	13,3
Estatukoak	10.543	144,6	23.501	127,0	2,23	2,40	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.798	1.196,2	7.004	701,4	1,84	2,98	-	-	-	-
Araba/Álava	2.678	202,6	5.362	188,0	2,00	2,10	15,9	9,7	18,4	9,6
Estatukoak	2.486	195,6	4.999	191,3	2,01	2,04	-	-	-	-
Atzeritarrak	192	336,4	363	148,6	1,89	3,32	-	-	-	-
Bizkaia	4.344	231,9	7.955	157,0	1,83	2,36	19,6	10,9	24,2	11,7
Estatukoak	3.125	153,2	6.087	120,2	1,95	2,24	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.219	1.525,3	1.868	464,4	1,53	4,41	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.319	203,7	17.188	174,1	2,35	2,60	26,0	15,7	30,5	16,3
Estatukoak	4.932	120,6	12.415	111,4	2,52	2,63	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.387	1.271,8	4.773	1.102,3	2,00	2,28	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Ekainaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta, 2022ko maiatzean erregistraturiko sarreraren % 73,5 eta gaualdien % 77,0 Estatutikoak izan dira. Hala ere, aurreko hilabeteetan bezala, atzerriko jatorriko pertsonen sarrerak eta gaualdiak bereziki ugaritu dira, aurreko urteko maiatzean baino 3.505 sarrera eta 6.130 gaualdi gehiagorekin.

2022ko maiatzeko urte arteko igoera, sarreretan eta gualdietan, % 202,6koa eta % 188,0koa izan da, hurrenez hurren, Araban. Bizkaian, sarrerak % 231,9 gehitu dira, eta gualdiak % 157,0. Gipuzkoan, azkenik, 2021eko maiatzaren aldean, sarrerak % 203,7 igo dira, eta gualdiak % 174,1.

Establezimendu-mota horietako batez besteko egonaldia 2,13 egunekoa izan da 2022ko maiatzean, 2021eko hilabete berean ikusitako 2,44 egunekoa baino laburragoa.

Plazakako eta gelakako okupazio-mailek ehuneko 12,8 eta 13,3 puntuko urte arteko igoera izan dute, hurrenez hurren: % 21,7koa da plazakako neurketan eta % 25,8koa gelakakoan.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko maiatzean**, sarrerak eta gualdiak 10.291 eta 40.323 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko maiatzaren aldean, urte batetik bestera sarrerak % 155,0 gehitu dira, eta gualdiak % 91,6. 2019ko maiatzean, COVIDaren aurretik, sarrera eta gualdi gutxiago izan ziren: 7.523 sarrera eta 26.548 gualdi.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Maiatza 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betezte-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2022/05	m/m-12 (%)	2022/05	m/m-12 (%)	2022/05	2021/05	2022/05	p.p. *	2022/05	p.p. *
EUSKAL AE	10.291	155,0	40.323	91,6	3,92	5,22	33,4	13,7	66,2	23,9
Estatukoak	6.551	90,2	25.438	50,8	3,88	4,90	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.740	531,9	14.885	255,9	3,98	7,07	-	-	-	-
Araba/Álava	1.097	127,9	7.572	43,4	6,90	10,97	22,7	4,2	69,8	19,3
Estatukoak	996	120,1	6.094	33,2	6,12	10,11	-	-	-	-
Atzeritarrak	101	251,3	1.477	109,5	14,69	24,63	-	-	-	-
Bizkaia	6.348	194,3	14.707	159,8	2,32	2,63	32,8	16,8	53,7	18,3
Estatukoak	3.881	105,4	7.897	65,9	2,03	2,52	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.467	822,0	6.810	655,4	2,76	3,37	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.847	103,7	18.044	78,5	6,34	7,23	42,5	19,0	72,6	30,2
Estatukoak	1.674	51,9	11.446	52,0	6,84	6,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.173	296,5	6.598	156,1	5,63	8,71	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Ekainaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko maiatzean, atzerriko jatorriko bisitarien kopurua Euskal AEko turismoko apartamentuetako sarrera guztien % 36,3 eta gualdien % 36,9 izan da; urte arteko 3.148 sarrera gehiago izan dira, eta 10.702 gualdi gehiago.

Horrelako establezimenduetan, batez besteko egonaldia 3,92 egunekoa izan da 2022ko maiatzean, 2021eko maiatzean baino laburragoa, orduan 5,22 egunekoa izan baitzen.

Lurraldeei dagokienez, batez besteko egonaldia, 2022ko maiatzean, 6 egunetik gorakoa izan da Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,32 egunekoa izan da.

Plazakako okupazio-maila, Euskal AEn, % 33,4ra iritsi da, hau da, ehuneko 13,7 puntuko hazkundera izan da 2021eko maiatzaren aldean. Apartamentuen arabera neurturik, okupazio-maila % 66,2tan kokatu da, urte arteko ehuneko 23,9 puntuko igoeraren ondoren.

Informazio-oharrak

Landa-ostatuaren ETHIren erantzun-tasa % **96,5ekoa** izan da, eta Apartamentu Turistikoena % **88,7koa**, 2022ko maiatzean.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62